

MOZIO ARRUNTA,

EUSKOTRENEK TOPOKO E2 LINEAKO ZEIN ZUMAIA-DONOSTIA LINEAKO TREN- ZERBITZUAK HOBETZEARI BURUZ

Juan Karlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Euskotrenen Topoko E2 lineako zein Zumaia-Donostia lineako tren-zerbitzuak hobetzeari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Euskotrenek Topoko zein kostaldeko tren-zerbitzua indartu zuen ekainaren 9an eta 10ean, Donostian errugbiko TOP 14 finalerdiak zirela-eta. Topoan, Hendaia eta Donostia artean, 10 minutuko maiztasunak ezarri ziren. Kostaldean ere, Donostia eta Zumaia artean, 30 minutuko maiztasunak izan ziren.

Hala ere, gaur egun, Zumaia eta Donostia artean, asteburuan, ordubeteko tren maiztasunak dauzkagu. Salbu ekainetik irailera bitarteko larunbatetan, ordu erdikoak baitira. Ondorioz, egun askotan trenak gainezka joaten dira, horrek erabiltzaile adindun eta mugikortasun urrikoengan dituen ondorio kaltegarriekin, eta, zenbaitetan, trenak ez dira nahiko eta erabiltzaile batzuek ordubetez itxaron behar dute hurrengoaren zain.

Kostaldeko Euskotrenen zerbitzu-aukerak nabarmen hobetuko lirateke, Gipuzkoako kostaldeko trenaren linea Zumaia-Donostia izan ordez, Deba-Donostia izango balitz. Ez luke eskatuko inolako obrarik, eta lortuko litzateke 2 geltoki gehiago zerbitzea.

Errugbiko TOP 14 finalerdietan ezarritako tren-maiztasunak askoz ere erakargarriagoak eta eraginkorragoak izan dira. Eta ez dago arazo tekniko handirik modu iraunkorren ezartzeko. Maiztasun hobe horiek modu iraunkorren ezarriko balira, gainera, AHTaren obren ondorioz Renfek Donostia eta Irun artean ezarritako zerbitzu-murrizketak neurri batean konpentsatuko lirateke.

Zalantzarik gabe, milaka donostiar lirateke hobekuntza hauen guztien onuradun.

Hori guztia dela eta, mozio arrunt hau aurkezten dugu.

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritza edota ETSri Euskotrenek Topoan (Hendaia eta Donostia arteko E2 linean) ematen duen tren-zerbitzua hobetu dezala, 10 minutuko maiztasuna ezarriz astelehenetik larunbatera bitartean.

2.-Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritza edota ETSri Euskotrenek Gipuzkoako kostaldean (E1 linean) ematen duen tren-zerbitzua hobetu dezala, 30 minutuko maiztasuna ezarriz aste osoan eta urte osoan.

3.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritza edota ETSri Gipuzkoan zerbitzua ematen dituzten Euskotreneko E1 eta E2 lineetako ordutegi eta ibilbideetan proposatzen diren hobekuntzak bultzatu ditzala.

Donostian, 2023ko urriaren 5ean

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH BILDU udal taldeko bozeramailea